Lasterketa

2018ko abenduaren 31n, **XXXIV San Silvestre Donostiarra** jokatuko da Donostian.

Amara Kirol Elkarteak antolatzen du. Amara auzoko kirol-elkarte bat da, eta Amara kalean bertan du egoitza. Gaur egun, hainbat kirol-modalitatetan ditu kirolari federatuak, hala nola atletismoan, areto-futbolean eta beste zenbait modalitatetan.

Aurreko edizioetan zehar, sendo finkatu da Gipuzkoako lasterketa herrikoien egutegian, eta, gaur egun, herrikoienetako bat dela esan dezakegu. Aurreko edizioan izan zen parte-hartzerik zabalena: 4.500 atleta, eta horietatik % 35 emakumezkoak.